

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Energia berriztagarriak tokiko komunitate energetikoetan sustatzeko oinarrien deialdia

Udalak, 2025eko urriaren 14an egindako osoko bilkuran, energia berriztagarriak komunitate energetikoetan sustatzeko laguntzen oinarri arauak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikulua eta Administrazio Prozedura Erkidaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikulua xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, guztiek jakin ditzaten.

LEHENENGO OINARRIA. DEIALDIAREN XEDEA.

Oinarri hauen xedea da Donemiliagako Udaleko kontzejuetako eguzki energia fotovoltaikoko instalazioak komunitate energetikoetan parte hartzeko eta erabilera sustatzeko zuzeneko deialdi kanonikoaren araubideko dirulaguntzak ematea arautzea.

Dirulaguntza hauen xede nagusia da Donemiliagako udalerrian energia aurrezteko eta efizientzia energetikorako neurriak sustatzea, bai eta energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea ere. Aurrezpen energetikoaren, efizientzia energetikoaren eta energia berriztagarrien erabileraren onurak hedatuz, eta jarduera ekonomikoen eta bizitegi sektorearen faktura energetikoa murrizte aldera.

Bestetik, eguzki energia fotovoltaikoko instalazioak sustatu nahi dira energia komunitateetan, bizitegi autokontsumoaren sustapenean eta energiaren tokiko eta erkidegoko kudeaketan parte hartzea diruz lagunduz.

Horrekin guztiarekin, energia eredu jasangarri baterako trantsizioa bultzatu nahi da, klima aldaketaren aurka borrokatzeko estrategia indartuz.

BIGARREN OINARRIA. ONURADUNAK.

Dirulaguntza hauek indarrean dagoen partidaren kargura jasoko dituzte Donemiliagako beren ohiko etxebizitzetan errolatuta dauden auzotarrek, baldin eta dirulaguntza argitaratzen den unean Donemiliagako udalerriko komunitate energetikoetako bateko kide badira eta komunitate horretan gutxienez 5 urtez jarraitzeko konpromisoa hartzen badute.

Auzotar bakoitzak dirulaguntza errolatuta dagoen helbiderako baino ezin izango du eskatu, dirulaguntza bakarra herriko etxe bakoitzeko eta/edo jardueraren helbide bakoitzeko.

HIRUGARREN OINARRIA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Eskaera orria, eredu ofizialaren arabera. Eredua Udalaren bulegoetan eskuratu ahal izango da, edo Udalaren webgunetik jaitsi: www.donemiliaga.eus.

Eskaerari honako agiriak erantsiko zaizkio:

1. Eskatzailearen NANaren fotokopia.
2. Kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
3. Komunitate energetikoko bazkidearen ziurtagiria.
4. 9.2 oinarriko eskaera eginez gero, errenta aitortpena.

Udalaren esku dauden datuen edo datuen bitartekaritza plataformaren bidez eskatuko dituzten zerbitzuak:

1. Udala: errolda orria.
2. AFA. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren altak eta bajak kontsultatzea.
3. Eskatzaileak udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

Eskaera batek ez baditu betetzen adierazitako baldintzak, Donemiliagako Udalak interesdunari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko hamabost egun pasatu baino lehen. Epe horretan gorabeherak zuzentzen ez badira, interesdunak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da eta eskaera artxibatuko da.

LAUGARREN OINARRIA. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Eskaerak eta agiriak Donemiliagako udal erregistroan aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Bitarteko telematikoen bidez, egoitza elektronikoan: <https://donemiliaga.eus/sede-electronica/>.

BOSGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Norgehiagoka gabeko prozeduraren bidez ematen diren laguntzak diren heinean, zuzenean emango zaizkie 9. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten onuradunei.

SEIGARREN OINARRIA. AURREKONTUKO ZUZKIDURA.

Dirulaguntza 425 780000 partidari egotziko zaio, 20.000,00 euroko zenbatekoarekin.

ZAZPIGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA.

Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskuratzen dituzten beste batzuekin. Dena dela, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa, beste laguntza batzuekin batera zein bakarrik, ezin da izan onuradunek egindako inbertsioa baino handiagoa.

ZORTZIGARREN OINARRIA. ESKAEREN AZTERKETA ETA EBAZPENA.

Idazkaritza Saileko teknikaria izango da organo izapidegilea, eta ofizioz egingo ditu ebazpen proposamenerako beharrezko jotzen dituen jarduera guztiak, datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzearen, horien arabera egin behar baita ebazpen proposamena.

Donemiliagako Udaleko alkateak du eskumena dirulaguntzak emateko, Informazio Batzorde Orokorrak proposamena egin ondoren.

Eskaerak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko dira, frogagiriak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta bertan adieraziko dira haren aurka jar daitezkeen errekursoak. Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da ebazpen hori.

BEDERATZIGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Oro har, komunitate energetiko baten bidez eguzki energia fotovoltaikoko instalazioak ezarzen direnean, haien erabilera sustatzeko, komunitate energetikoko bazkide erabiltzaile bakoitzari 500,00 euroko zuzeneko dirulaguntza emango zaio, egindako inbertsioaren ehuneko 50eko gehieneko mugarekin.

Salbuespen gisa, eta honako baldintza hauek betetzen dituzten onuradunen kasuan, 1.000,00 euroko zuzeneko dirulaguntza emango da komunitate energetikoan erabiltzaile gisa parte hartzeagatik, egindako inbertsioaren ehuneko 75eko gehieneko mugarekin.

FAMILIA UNITATEA	2022KO GEHIENKO DIRU SARRERAK (OROKORRA)
1	21.000,00 euro
2	29.000,00 euro
3 edo gehiago	38.000,00 euro

Azken kasu horretan, eskatzaileak berariaz zehaztu beharko du eskaeran laguntza mota hori eskatzen duela. Udalak 2024ko PFEZaren kontsulta egingo du bitartekaritza plataformaren bidez, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko.

HAMARGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.

Dirulaguntzaren zenbateko osoa (ehuneko 100) laguntza emateko ebazpena onestean ordainduko da.

Dirulaguntza ez da ordainduko pertsona edo erakunde onuradunak ez badu udal honek emandako beste dirulaguntzarik justifikatu edo, eskatu arren, aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu.

Dirulaguntza ezin izango da ordaindu erakunde edo pertsona onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, edo itzulketa ebazpen bidez zorduna bada.

HAMAIKAGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZA GALTZEA.

Laguntzen onuradunek jarraian zehaztuko diren baldintzetako bat betetzen ez badute, espedientea irekiko da jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze interesak itzularazteko.

Hona hemen zein kasutan irekiko den dirulaguntza galtzeko espedientea:

- a) Deialdi honetako bigarren oinarrian ezartzen den gutxieneko asistentzia frogatzen ez bada.
- b) Aurkeztutako eskaeran eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- c) Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunari diruz lagundu zaion inbertsioaren kostua baino handiagoa bada.

HAMABIGARREN OINARRIA. Dirulaguntza eskatzeak oinarri hauek eta Dirulaguntzen Udal Ordenantza ezagutzen eta onartzen direla esan nahi du.

HAMAHIRUGARREN OINARRIA. Donemiliagako Udalak datuak benetakoak diren egiaztatzeko, bai eta oinarri hauetan ezarritako arauak betetzen diren ere. Horretarako, pertsona onuradunek hitzematen dute dirulaguntzaren xede den jardueraren inguruan eskatzen zaizkien datuak eta agiriak emango dituztela, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dituenak ere.

Halaber, udalari baimena ematen diote eskaeraren eta eskatzaileen inguruko informazioa eskatzeko eta datuak, baldintzak edota inguruabarrak egiaztatzeko edo argitzeko. Horretarako, udalak behar diren txostenak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie erakunde eta pertsona publiko zein pribatuei.

HAMALAGARREN OINARRIA. Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du.

HAMABOSGARREN OINARRIA. Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: toki araubidearen arautegia; Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia; eta, udalak onartutako dirulaguntzen udal ordenantza eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

HAMASEIGARREN OINARRIA. Deialdi honen aurka bi errekurso aurkez daitezke: zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen; bestela, aukerako berraztertze errekurtsua deialdia onartu duen organoari berari, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen. Azken horren berariazko edo ustezko ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsua ezesten duen ebazpenaren berri jaso eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen (ebazpena ustezkoa bada, sei hilabete pasatu baino lehen).

Erdoñana, 2025eko azaroaren 5a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO